



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Oinutsik

Galtzerdiak zapatiletan sartu, zapatilei eskuekin heldu eta oinutsik sartu naiz hondarretan; eskuak dabil-tzan eta oinek ukitzen duten apirileko goiz honetan, euririk gabeko udaberriko egun berezi honetan, badirudi munduak buelta eman duela eta hareak kilimak egin dizkit oinpean ume garaian bezala, hankazpiak erretzen genituen eguzkitako kremaren usaineko abuztuko arratsalde haietan bezala, baina, gaur ez; apirileko hondarrak kilimak baino ez ditu egiten lorratzak uzten ditugun bitartean, hanka bat batzuetan, baina orpoaren gainean pisua eginez gero, intxaur oskol bat akaso; eta itsasoak ez du memoriarik, eta guk ere ez beharbada; biharko olatuen hortza zuriek jango dituzte nire aztarnak, kras, kras, kras, eta ni ere ez naiz oroituko, praktikotasunik ez daukaten ekintzak burutik kentzeko daukadan berezko joerarengatik seguru ahaztu egingo ditudala intxaur oskolak eta olatuek bustitako ileak astindu dituenen jabea Kantauriko apirileko ur hotzez blai utzi duen zakur hori, eta arnasari eutsita lasterka uretan bularreraino sartu den mutil gazte hori, arroketan jolasean ari diren horiek ahaztuko ditudan bezala; itsasoak ez baitu memoriarik, naziorik ere ez, eta urek ez dute aduanarik ezagutzen, eta mapetako irudime-nezko marren azpitik, gainetik eta tartetik pasatzen dira etengabe; tira, akaso bai, akaso ezagutzen dituzte aduanak eta horregatik jaten zituzten umetan toallatik toallara hatz lodiarekin hondarretan marrazten genituen mugak, “honaino ni, honaino zu; zu ez zara ni eta ni ez naiz zu” eta muga egoteak berak tentatzen gintuen hatza bestearen toallan jartzera, hanka pixka bat luzatu eta lagunari hondar pixka bat botatzera, eta, haurtzarora bezala, Kantauri ere ez da bukatzen, eta gaur Donostian dau-den tantak Irlandan egon ziren joan den astean, Jamaikan akaso iaz, Kantauri ez baitabil Mediterraneo bezala, bi kontinenteren arteko pasabide estutik atera ezinik; guk ez dugu Mediterraneo-rik, eta Mediterraneoak, naziorik ez ba-du ere, dokumentazioa eskatzen die aduana pasa nahi dutenei, eguzkitako

kremaren usainik ez badute batez ere, eta Algecirastik ferryak bare-bare joaten dira Tangerrera; kruzeroak hara-hona ibiltzen dira Tunisian, Egipton, Maltan, hondar aleak dabil-tzan bezala, goizean Ceutan eta arratsaldean Gibraltarren, baina intxaur oskolak amorruez irensten ditu Mediterraneoak eta sotoan giltzaz itzalperatutakoek berunezko sabaia jo arren, oskoletatik atera nahi duten arren, Mediterraneo gose da eta atse-denik hartu gabe jaten ditu intxaur oskolak bere hortza zuriekin, kras, kras, kras, eta laguntza eskatu arren, kras, kras, kras, oi-hu egin arren, kras, kras, kras, itsasoa ederra da, ederregia kruze-ro batetik, ferry batetik, Santa Klararen paretik ezer entzuteko, galderarik egiteko, zergatik norabide batean barea dena hil edo bizikoa den beste norabidean, zergatik, zergatik arriskatu, zergatik bi-zitza jokoan jarri, zergatik Europa, zer-

gatik Libia, zergatik merkantzia ontziak soilik hurbiltzen diren laguntzera, zergatik ez dugun goizetan hankak bustitzea baino kezka handiagorik, zergatik, zergatik; baina itsasoak ez du memoriarik eta guk ere ez akaso, intxaur oskolak desagertu egingo dira eta guk ez dugu izenik galdetuko, 400-700-900 kontatuko ditugu harategietan okela pisatzen dugun gisan, segurtasunaren prezioan, ongizatearen albo-kalte; hanketan kilima egiten dit hareak eta galerna dator Santa Klaratik, badakit etorriko dela eta etxera joango naiz badaezpada; itsasoa-ri bizkarra eman eta banoa; mundua or-denatu eta banoa; harea oinetatik ken-du eta banoa intxaur oskolen arrastoak hondarretan utzita; berriz ere galtzerdiak eta zapatilak jantzita banoa; guk ez daukagu Mediterraneo-rik, baina izango bagenu, egunsenti gorrietan oinutsik paseatuko ginatke bere ertzetan? •



«Zergatik norabide batean barea dena hil edo bizikoa den norabidean».